

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2019ko 3. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2019ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,1 hazi zen, urteko lehen erdian baino hamarren bat gutxiago bakarrik. Emaitza horrek egonkortasun erlatiboaren irudia ematen du BPGaren bilakaeran. Gainera, argitaratutako aldakuntza tasa Ekonomia eta Aurreikuspen Zuzendaritzak aldi horretarako aurreikusitakoa (%2,2) baino pixka bat txikiagoa bada ere, ia ez du eraginik izan urte osorako espero den gehikuntza tasan, %2,2an mantentzen baita. Beste hiruhileko batez, azpimarratu behar da EAEko hazkunde erritmoa Europako batez bestekoa baino askoz handiagoa dela, bai Eurogunearekin (%1,2) bai Europar Batasunarekin (%1,4) alderatuta.

Eskariaren araberako hazkunde-banaketak adierazten du inguruko herrialdeekiko hazkunde diferentzia horrek ez dakarrela kanpo saldoaren bidezko dinamismo galerarik, esportazioen eta inportazioen arteko balantzea nahiko neutroa baita. Hain zuzen ere, hirugarren hiruhilekoan kanpoko saldoak hazkundeari egindako ekarpena hamarren batekoa izan zen, aurreko hiruhilekoan lortutako kopuru bera baita. Hala eta guztiz ere, hirugarren hiruhilekoan ekarpen positiboa harreman komertzialen jaitsieran lortzen da, esportazio errealak %0,9 uzkuritu baitziren eta inportazioak, berriz, %1,0. Nazioarteko merkataritza geldiarazten duten mehatxuak, bereziki Brexit-a eta Txinaren eta AEBen arteko merkataritza gerra, konponbiderako bidean daudela dirudi, baina hirugarren hiruhilekoan erabat indarrean zeuden, eta EAEko enpresen merkataritza trukeetan eragina izan zuten.

Ziurgabetasun orokor horrek ez zion, oro har, barne eskariari eragin, %2,0 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoan eskuratutako tasa bera. Hala eta guztiz ere, ikusten da kapital eraketa gordinak bultzada galdu duela, batez ere ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioan, %0,8 bakarrik egin baitu aurrera, azken urteetako zifra bikainen oso azpitik. Gainerako inbertsioaren portaera hobea izan zen, eraikuntzan egindakoa barnean hartzen baitu, aurreko emaitza hamarren batzuetan hobetu baitzen, %2,9 hazi arte.

Aitzitik, azken kontsumoak moteldu egin zuen desazelerazio leuna eta hamarren bat hobetu zuen hazkunde erritmoa (%2,0). Agregatu horren bi osagaietatik, administrazio publikoen kontsumoa izan zen hobekuntza arinaren erantzulea, %2,4ko igoera erregistratu baitzuen, hots, aurreko bi hiruhilekoetan baino lau hamarren gehiago. Bestalde, familien kontsumoak urte arteko erritmoa moteltzen jarraitu zuen eta %1,8 egin zuen gora, bigarren hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Enpleguaren intentsitatea galtzea da bilakaera horren arrazoi nagusia.

Eskaintzaren ikuspegitik, hirugarren hiruhilekoaren ezaugarri behinena sektore nagusiek lortutako erritmoei eutsi izana da, lehen sektorean izan ezik, haren balio erantsia nabarmen okertu baitzen

(-%1,8). Hala, industriak %0,7ko igoera izan zuen, 2019ko lehen bi hiruhilekoetan lortutako aurrerapenetatik oso desberdina ez dena, nahiz eta manufakturen atala (%0,3) geldialdiko egoera batera hurbiltzen ari den. Beste aldetik, eraikuntzak %2,9 esanguratsu bat egin zuen gora, aurreko datua berdinduz, baina 2018an lortutako emaitza bikainetatik urruntzen da (%4,1). Azkenik, zerbitzuek %2,7 igo zuten beren balio erantsia, aurreko hiruhilekoetako datuen ildoari jarraituz. Sektore hori osatzen duten hiru jarduera blokeetako bat bera ere ez zen nabarmen aldatu aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta ez dago alde handirik bakoitzak lortutako hazkunde tasetan, administrazio publikoari lotutako jardueren %2,4aren eta gainerako zerbitzuen %2,8aren artean kokatzen baitira.

Enpleguak jarraipena eman zion 2018ko erdialdetik bizi den moteltzeko bide leunari eta urte arteko %1,6ko hazkundera izan zuen, bigarren hiruhilekoan jaso zuena baino hamarren bat gutxiago. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko 15.200 lanpostu baliokide inguru sortu direla azken urtean. Kopuru horretatik, 12.600 lanpostu zerbitzu-jardueretan sortu ziren, eta, lehen aldiz, 700.000 lanpostutik gora izatera iritsi dira. Adierazgarria da, halaber, eraikuntzak izandako gorakada (%2,3), baina intentsitatea galdu du aurreko hiruhilekoekin alderatuta. Azkenik, industriako enplegua %0,5 hazi zen eta 1.000 lanpostu berri baino zertxobait gehiago eman zizkion ekonomiari.

Jarduera ekonomikoak hedatzeko joerari eusten dio eta horrek oraindik ez dio eragiten prezioen bilakaerari. Hain zuzen ere, BPGaren deflatoea %0,9an kokatu zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiru datuak baino bi hamarren beherago. Halaber, kontsumo pribatuaren deflatoeak bere moteltzeari jarraipena eman zion, %0,8an kokatu arte, bere baliorik baxuena hamar hiruhilekotan. Antzeko bilakaera ikusten da KPIan, azaroan urte arteko tasa %0,8 soilik igo baitzen, moderaziorako joera argian. Azpiko inflazioak, berriz, ez du gora egin, eta %1,1ean kokatu da azken zazpi hilabeteetatik lautuan; hondar inflazioak, energia eta elikagai freskoak barne hartzen baititu, balio negatiboetan jarraitu du.


Bertoko eta inguruneko koiunturazko informazioaren eguneratzea eszenategi makroekonomiko berri batean islatzen da, baina emaitza ez da askorik aldatzen aurreko buletinean argitaratutakoarekin alderatuta. Izan ere, 2019rako espero den hazkundera %2,2an mantendu da eta datorren urterako, berriz, %1,9ko hazkundera aurreikusten da, irailean aurreikusitakoa baino hamarren bat txikiagoa delarik. Industriaren susperraldi arina espero da 2020an, aurtengo emaitza lau hamarren hobetuko duena (%0,7tik %1,1era). Aitzitik, eraikuntzak zein zerbitzuek intentsitatea galduko dute hiruhilekoak igaro ahala. Eskariaren ikuspegitik, kanpoko saldoak hamarren bat kenduko dio BPGaren hazkunderari aurtan, eta bi hamarren datorren urtean. Aldi berean, barne eskaria apur bat motelduko da. Azkenik, enpleguan %1,6ko aurrerapena espero da 2019an, eta %1,2koa, berriz, 2020an.

EKONOMIAREN INGURUNEA


AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerrak, eta AEBen eta Europar Batasunaren arteko tentsioek, Airbusi emandako laguntzen ondorioz, ziurgabetasuna sortu zuten merkataritza harremanetan, eta 2019ko hirugarren hiruhilekoan ekonomia globalarentzat arrisku foku nagusia izaten jarraitu zuten. Era berean, Brexitaren auziak apenas egin zuen aurrera, Komunien Ganberan ez baitzen lortu Boris Johnsonen eta Europar Batasunaren artean lortutako akordioa berrestea, eta, beraz, beste luzapen bat eskatu behar izan zen. Ziurgabetasun hori gorabehera, ekonomia aurreratuek, hazkunde tasa mugatu beharrean, aurrera egiteko erritmoa finkatu zuten.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Azaleratzen ari diren herrialdeek, bestalde, ez zuten lortu giro horretatik aldentzea eta euren hazkundeak murrizten ikusi zuten. Txinan, industria sektoreak bizitasuna galdu zuen eta esportazioak %1,0 jaitsi ziren abuztuan eta %3,2 irailean, biak ere AEBekiko merkataritza gerrarekin lotutako ziurgabetasunak zigortuta. Bestalde, Asiako erraldoia zerbitzuetan oinarritutako ekonomia baterantz bizitzen ari den trantsizioak hazkunde erritmo txikiagoak dakartza. Hori guztia kontuan hartuta, Txinako BPGa %6,0 hazi zen, aurreko hiruhilekoko balioa baino bi hamarren gutxiago, eta 1992an seriea argitaratzen hasi zenetik izan duen aurrerapen txikiena. Dena den, dezelerazio berri horrek ez dirudi Txinako gobernuak kezkatzen duenik; izan ere, abenduaren hasieran defendatu zuen Txinako ekonomiaren epe luzerako etengabeko hazkundearen joerak bere horretan jarraitzen duela orainaldian, baina baita hurrengo aldian ere. Indiak ere, berriz, bere hazkundea moteldu zuen. Hain zuzen ere, herrialde horretako BPG %4,7 hazi zen, eta bosgarren hiruhilekoz jarraian hazkundea apaldu zuen. Kasu honetan, kontsumoa, publikoa zein pribatua, sendo agertu zen, nahiz eta sendotasun hori inbertsioaren moteltzeak eta esportazioen uzkertzeak indargabetu zuten.

Garapen bidean dauden gainerako herrialdeetan, bilakaera desberdina izan zen. Hala, Mexikon ekonomiak ez zuen gora egitea lortu eta bi hiruhilekotan hazkunde hutsalak izan ondoren, hirugarren hiruhilekoan jarduera ekonomikoa %0,2 jaitsi zen. Zerbitzuen hazkunde nuluak eta industria sektorearen jaitsierak azaltzen dute uzkertze hori. Brasilek, aldiz, susperraldia finkatu zuen, BPGaren %1,2ko aurrerapenarekin. Irailean, Zerbitzu Denboragatik emandako Berme Funtzaren ballabideak liberatu izanak (langileak kaleratzean edo etxebizitza bat erosteko beharra izatean soilik eskura zezakeen kalte ordain bat), eta interes tasa txikiago batzuek kontsumo pribatua bultzatu zuten, Brasilgo hazkundearen zutabe nagusia baita.

Herrialde garatuek, oro har, aurreko hiruhilekoaren hazkunde erritmo berari eutsi zioten eta %1,6 hazi ziren. Horien artean, AEBen bilakaerak nabarmendu zuen, bere BPGa %2,1 handitzea lortu baitzuen. Aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino bi hamarren gutxiagoa den arren, aurrerapen sendoa da, bereziki duela hilabete batzuetatik herrialde iparramerikarra inguratzen duen tentsio komertzialen testuingurua eta dagoeneko martxan dauden neurri protekzionistak kontuan hartuta. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatuak eta publikoak indartsu jarraitu zuten, %2,0tik gorako hazkunde tasak eskuratuta. Hala eta guztiz ere, tentsio horiek eragina izan zuten merkataritza erabakietan, batez ere egituretako inbertsioekin zerikusia dutenetan, %7,3raino murriztu baitziren eta barne eskariaren aurrerapena oztopatu baitzuten. Kanpoko eskariak, aurreko hiruhilekoen ildoak segituz, hamarren bat kendu zion berriro BPGaren gehikuntzari. Jarduera ekonomikoak dinamismo txikiagoa izan zuen arren, lan merkatuak tonu onari eutsi zion. Hain zuzen ere, azaroan 266.000 landun berri erregistratu ziren, eta kopuru hori bereziki nabarmena da 2018tik enplegu betean dagoen ekonomia batean. Langabezia tasa, azkenik, %3,6ra jaitsi zen urrian.

Japoniako ekonomiak ezustea eman zuen herrialde hartako BPGaren %1,9ko aurrerapenarekin, aurtengo lehen seihilekoan eskuratu zuen %0,8ko hazkundearen oso gainera baitago, barne eskariaren agregatu guztien portaera onari esker. Izan ere, inbertsioa izan zen osagaiarik dinamikoena, %4,2ko hazkundeararekin, eta kontsumo pribatua, Japoniako ekonomiaren zutabe nagusia baita, %1,3 handitu zen, urrian BEZaren berehalako igoeraren aurrean erosketak aurreratzeke nahiak bultzatuta. Zifra horiek, hala ere, esportazioen beherakadak eklipsatu zituen, %1,1 murriztu baitziren. Txinako ekonomiaren motelaldiak, herrialde hori Japoniako merkataritza bazkide nagusia baita, eta herrialde horren eta AEBen arteko merkataritza gerrak eragin negatiboa izan dute Japoniako bidalketetan; izan ere, 2018ko azarotik, 2019ko uztailean izan ezik, ez dute igoera positiborik lortu. Prezioei dagokienez, urrian, BEZaren %8,0tik %10,0ra bitarteko igoera gauzatu ondoren, KPIa %0,2an finkatu zen, eta horrek esan nahi du hogeita hamalagarren hilekoz jarraian igo dela.

Europar Batasunak, berriz, egonkortasuneko irudia erakutsi zuen %1,4 hazi zelako, aurreko hiruhilekoko erritmoa berdinduz. Kontsumo pribatuak aurreko erregistroak hobetu zituen, kontsumitzaileek oraindik ere diru politika oso egokiari eta enplegua sortzen jarraitzen duen lan merkatuari etekina ateratzen diotelako. Zehazki, urrian, langabeen kopurua 15.583.000 izan zen, hots, 2008ko krisiaren aurretik erregistratutako langabeen mailaren azpitik. Orobat, langabezia tasa %6,3koa izan zen seigarren hilabetez jarraian, orain arteko mailarik txikiena baita. Inbertsioak, berriz, bere sendotasunari eutsi zion eta 1,4 puntu ekarri zizkion BPGari. Txanponaren ifrentzua izakinen aldakuntza izan zen, jarduerari sei hamarren kendu zizkiolako, kanpo sektoreak kendu zuen kopuru berbera, dinamismo esportatzailea hobetu arren.

Herrialdeka, Alemania %0,5 hazi zen urteko hirugarren hiruhilekoan eta hazkunde biziagoei ekin zien berriro, atzeraldaren itzala, oraingoaz, atzean utzita. Aurrerapen hori kontsumo pribatuan oinarritu zen, gaur egun hazkundearen zutabe nagusia baita, neurri handi batean, langabezia tasa baxuari esker (urrian %3,1ean jarraitzen zuen, seigarren hilabetez jarraian). Halaber, esportazioak suspertu egin ziren eta aurreko hiruhilekoan izandako beherakadaren ondoren, hazkunde positiboekin ekin zieten berriro. Hala eta guztiz ere, BPGren hazkundeak ahula izaten jarraitu zuen, merkataritza tentsioek, ekonomia globalaren moteltzeak eta automobilaren sektorearen egiturazko aldaketek Alemania kaltetu zutelako. Frantzia jarduera ekonomikoa egonkor mantendu zen. %1,4ko hazkunde batekin, badirudi Frantziako ekonomiak bere gurutzaldi abiadura aurkitu duela. Kasu honetan, kontsumoa eta inbertsioa sendo mantendu ziren eta lehen baino gehiago hazi ziren, baina kanpoko eskari batek kalte egin zien, BPGa hamarren bat txikitu baitzuen. Inportazioen igoera handiak azaltzen du kenketa hori.

Italiako ekonomia %0,3 hazi zen, aurrerapen txikia baina garrantzitsua, aurreko bederatzi hilabeteetan jaso zituen hazkunde hutsalak eta negatiboak kontuan hartuz gero. Dena den, haren egoera kezagarria da oraindik. Kontsumoak ez du ia gora egiten eta inbertsioak ez dira areagotzen, eta bertako gobernuak ez du suspertzeko politikak ezartzeko aukerarik, neurri horiek

zor publikoa are gehiago handituko ote duten beldur. Italiako ekonomiak azken hilabeteetan izan duen geldotasunak agerian utzi ditu herrialdeak azken urteotan bizi dituen arazo ekonomiko, fiskal eta finantzario handiak, eta agintariak ez dira arazo horiek konpontzeko gai izan. Erresuma Batua, berriz, %1,0 hazi zen urteko hirugarren hiruhilekoan, 2010eko lehen hiruhilekotik izan duen kopururik txikiena. Kontsumoaren egonkortasuna gorabehera, merkataritza gerratik eratorritzen diren tentsioek esportazioak kaltetu zituzten, eta Brexitari buruzko kezka inbertsioan eragin handia izan zuen (-%0,4), batez ere enpresetan, manufakturen industrian eta inportazioetan, %0,6 jaitsi baitziren.

Espainiako ekonomia, azkenik, %2,0 hazi zen udako hilabeteetan, aurreko hiruhilekoko erritmo bera, eta argi eta garbi Europar Batasunaren eta haren bazkide komertzial nagusien gainetik. Kasu honetan, hazkundera familien kontsumoak eta enpresen inbertsioak sostengatu zuten, eta etxebizitzan eta eraikuntzan egindako inbertsioa uzkurto egin zen (-%0,7). Munduko merkataritzak bizi zuen okertzeko joera gorabehera, inportazioek hazkunde positiboekin zieten berriro, eta Espainiako esportazioek eutsi ez ezik, urteko bigarren hiruhilekoan baino are gehiago handitu ziren. Mugimendu horien ondorioz, kanpo sektoreak bi hamarren ekarri zizkion jarduerari. Lan merkatuari dagokionez, enplegua %1,8 handitu zen, eta urrian langabezia tasa %14,2ra jaitsi zen.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III (**)
Azken kontsumoko gastua	2,5	1,9	1,7	1,4	1,3	1,0	1,7
- Familien gastua	3,0	1,8	1,6	1,2	1,1	0,6	1,5
- Administrazioaren gastua	1,0	1,9	1,9	2,2	2,2	2,2	2,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,3	5,3	3,5	4,8	1,0	2,0
Nazio eskaria (*)	3,0	2,6	2,5	2,0	1,9	1,0	1,8
Esportazioak	5,6	2,2	1,6	0,1	0,3	2,2	2,3
Inportazioak	6,6	3,3	2,5	-0,3	-0,4	-0,7	2,0
BPG (m.p.)	2,9	2,4	2,2	2,1	2,2	2,0	2,0
Nekazaritza eta arrantza	-3,0	5,9	3,0	6,9	0,0	-4,6	0,1
Industria	3,1	-0,4	-0,2	-1,5	-0,7	0,2	1,8
Eraikuntza	4,9	5,7	6,2	5,9	6,4	5,2	2,4
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,6	2,7	2,9	2,8	2,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,8	1,2	0,8	0,0	-0,5	-0,4	-0,6

Oinarri urtea: 2015. (*) BPGaren hazkunderari eginiko ekarpena. (**) Aurrerapena.
Iturria: Espainiako Estadística Erakundera (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2019ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,1 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. 2018ko bigarren erdialdetik izandako motelaldiaren ondoren, BPGa egonkortasun fase batean sartu da urte osoan zehar luzatzen den hazkunde erritmoan. Eustaten zenbatespen ofiziala Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena baino hamarren bat txikiagoa da, baina alde horrek ez du aldatzen urte osorako aurreikuspena, %2,2an mantentzen baita. Hiruhileko arteko tasan, hirugarren hiruhilekoko igoera %0,5 izan zen, urteko lehen erdikoa baino hamarren bat txikiagoa ere bai. Inguruko herrialdeekiko alderaketa Euskadiren aldekoa da oraindik ere, bai Euroguneak (% 1,2) bai Europar Batasunak (% 1,4) tasa nabarmen txikiagoak erregistratu zituztelako.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	2,8	3,0	3,0	2,6	2,2	2,2	2,1
Nekazaritza eta arrantza	10,1	7,9	4,8	15,9	4,6	-0,1	-1,8
Industria eta energia	2,5	2,5	2,5	0,3	0,6	0,8	0,7
- Manufakturen industria	2,5	2,8	2,9	0,5	0,6	0,7	0,3
Eraikuntza	1,6	4,1	5,4	6,2	4,8	2,9	2,9
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5	2,7	2,6	2,6	2,7
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,1	4,0	3,9	3,6	2,8	2,5	2,6
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,2	2,1	2,0	2,1	2,1	2,3	2,4
- Gainontzeko zerbitzuak	2,6	2,2	2,0	2,4	2,7	2,9	2,8
Balio erantsi gordina	2,8	2,8	2,7	2,4	2,2	2,2	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	4,9	5,1	3,8	2,2	1,9	2,0

Iturria: Eustat.

Sektoreen azterketak ia ez du alderik erakusten aurreko hiruhilekoaren bilakaerarekin alderatuta, eta hazkundera zerbitzuen eta eraikuntzaren sendotasunean oinarritzen da; industriak, berriz, ahultasun nabarmena erakusten du oraindik, nahiz eta balio erantsia handitzea lortzen duen. Zehazkiago adierazita, industria-sektoreak %0,7 egin zuen gora termino errealetan, urteko lehen bi hiruhilekoetan lortutakoaren oso antzeko tasa baita. Manufakturen kasuan, aurrerapena

mugatuagoa da (%0,3) eta aurreko datuak baino txikiagoa. Zifra horiek oso apalak izan arren, gogoratu behar da euroaren eremu osoan sektore horrek lau hiruhileko daramatzala beherakadak metatuta; beraz, herrialde horiekin alderatuta, EAEko industriak inguruneak baino jarduera hobea izan du, nahiz eta Brexitak eta muga zergen gerrak, besteak beste, sortzen duten ziurgabetasunak ere eragiten dion

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
Industria							
Industria produkzioaren indizea	5,7	2,2	3,5	-2,4	0,1	1,4	0,8
Negozio zifren indizea	9,4	5,8	7,6	-0,8	2,5	-3,9	-2,1
Eskarrien sarrera	6,5	4,3	1,5	2,8	4,1	2,5	-0,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,8	1,9	1,3	1,1	0,8	0,3
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	5,9	18,5	19,8	21,9	6,1	4,1	---
Etxebizitza berriak eraikitzeko	26,7	20,3	16,7	3,6	30,0	-1,6	-23,2
Etxebizitzaren salerosketak	11,4	13,8	16,4	15,5	3,7	-3,0	-11,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	3,6	4,0	4,3	4,0	3,7	2,5
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	9,2	10,5	10,3	10,8	7,4	10,6	10,2
Hoteletan igarotako gaualdiak	2,6	7,2	5,9	9,4	3,7	6,6	3,6
Negozio zifren indizea	4,4	7,4	9,1	5,5	5,0	3,7	5,1
Zerbitzuen koiuntura indizea	3,2	1,1	0,0	1,7	1,8	1,0	0,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	2,1	1,7	2,0	1,8	2,1	2,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

EAEko industriaren ahultasun erlatiboa sektorearen ekoizpenaren bilakaeran ere hautematen da, hirugarren hiruhilekoan %0,8ko igoera apala izan baitzuen. Tasa hori bat dator aurtengo lehen hamar hilabeteetan lortutako batez bestekoarekin. Produktu multzoka, erritmo falta nabarmena da guztietan, energiaren salbuespenarekin. Hain zuzen ere, ondasun energetikoen ekoizpena bi zenbakitan hazten ari da abuztutik, nahiz eta kontuan hartu behar den emaitzetan gorabehera handiak izaten dituen sektorea dela. Bestalde, kontsumoko ondasunak hazi egiten dira, batez ere produktu iraunkorren bilakaera hobeari esker, nahiz eta galkorrek ere ekoizpena handitzea lortzen duten. Ekipamendurako ondasunek hazkunde erritmo nabarmenarekin hasi zuten urtea, baina gerora hainbat hilabetez pilatu zituzten erorikoak. Hala eta guztiz ere, irailean eta urrian

hobekuntza nabari da talde horretan. Azkenik, bitarteko ondasunek beherakada handiak eta garrantzi txikiko datu positiboak izaten dituzte.

Industriak ahul jarraituko du datozen hilekoetan ere, koiunturazko informazio berrienak iradokitzen duenez. Izan ere, urriko IPI indizeak %0,6ko hazkundera izan zuen eta horrek ez du esan nahi berehala suspertuko denik. Bestalde, eskaera berrien sarrera negatiboa izan zen hirugarren hiruhilekoan, hainbat alditan lehen aldiz. Era berean, sektoreko negozio-zifra bi hiruhilekotan jarraian jaitsi zen.

Eraikuntzak hiruhilekoko urte arteko tasarik altuena erregistratu zuen berriro, %2,9 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoaren balioa berdinduz. Itxurazko egonkortasun hori gorabehera, koiunturako informazioak iradokitzen du etxebizitzaren atala aurreko aldien hedapen handia geldiarazten ari dela. Hala, etxebizitza berriak eraikitzekeo baimenak %20 baino gehiago hazi ziren 2017an eta 2018an, baina orain antzeko tamainako tasa negatibotan daude. Halaber, etxebizitzaren erosketa gelditu egin da (-%11,4 hirugarren hiruhilekoan), nahiz eta hori hipoteka lege berria indarrean jartzearen ondorio izan daitekeen, merkatuak denbora beharko baitu lege horretara egokitzeko. Izan ere, urriko datuak %7,9ko igoera jaso du. Bestalde, obra zibilak bere jarduera hobetzen du, Eustaten eraikuntzaren koiuntura inkestaren arabera.


Zerbitzuek aurreko aldietako egonkortasunari eutsi diote eta beren balio erantsia %2,7 igo zen hirugarren hiruhilekoan, 2018ko batez besteko igoera berdinduz. Izan ere, urteko lehen erdian lortutakoa baino hamarren bat handiagoa izan zen tasa hori. Sektorea osatzen duten hiru taldeek egonkortasuneko irudia eskaintzen dute hazkunde erritmoan, euren artean alde handirik ez dagoela. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen blokeak %2,6 handitu zuen bere balio erantsia, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. 2018arekiko moteltzea esanguratsua da, baina tasa nabarmenak ditu oraindik. Bestalde, administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen taldeak %2,4 egin zuen gora, 2017ko eta 2018ko balioen zertxobait gaineratik. Azkenik, gainerako zerbitzuak %2,8ko erritmoan hazi ziren, urteko lehen erdiko tasen ildotik eta 2017ko eta 2018ko balioen gaineratik. Azken bi talde horien hobekuntzak merkataritzaren eta ostalaritzaren bizitasun galera konpentsatu du.

Turismoarekin lotura handiagoa duen koiunturako informazioak adierazten du jarduera horrek une gozoa bizitzen jarraitzen duela. Zehatz-mehatz azalduta, EAEko aireportuetako bidaiarien trafikoa %10,2 igo zen hirugarren hiruhilekoan, 2018an lortutako tasaren antzekoa baita. Era berean, hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %3,6 igo ziren hiruhileko horretan. Azaroko eta abenduko datuak jakin gabe, oso litekeena da bi aldagai horietan marka berriak lortzea, sei milioi bidaiari baino gehiago garraiatuta eta sei milioi gaualdi baino gehiago erregistratuta hoteletan.


EAEko barne produktu gordinak urtean zehar erakusten duen egonkortasuna, neurri handi batean, lanpostu berriak sortzeko duen gaitasunean islatzen da. Izan ere, 2018ko bigarren hiruhilekotik aurtengo urtearen hasierara bitartean izandako apaltze handiaren ondoren, 2019ko hiru hiruhilekoetan enpleguaren igoera hamarren bat baino ez da moteldu hiruhileko bakoitzeko, hirugarrenaren %1,6ra iritsi arte. Tasa horren ondorioz, azken urtean lanaldi osoko 15.200 lanpostu baliokide baino gehixeago sortu dira, eta kopuru horrek langabezia-tasa % 9,2ra jaisteko balio izan du.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Sortutako enplegu berri horietako gehienak zerbitzuen sektoreko jardueri dagozkie, eta dagoeneko 700.000 lanpostu baino gehiago daude zerbitzuetan, historian lehen aldiz. Ekonomiaren tertziarizazioa dago prozesu horren atzean. Guztira, enplegu berri guztietatik 12.600 lanpostu zerbitzuetan kokatu dira, urte arteko %1,8ko hazkundearekin. Bestaldetik, eraikuntzan enpleguak %2,3ko erritmoan egin zuen gora, moteltzeko joera argi batekin. Sektore horrek ia 1.400 lanpostu berri ekarri zituen enplegura. Azkenik, industriak %0,5eko igoera txiki bat izan zuen, aurreko balioak baino txikiagoa dena; horrek esan nahi du 1.100 lanpostu garbi ekarri zizkiola ekonomiari.

Enplegu sorrerak bizi duen intentsitate galera txikiak jarraipena izan du laugarren hiruhilekoan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioak urrirako eta azarorako emandako informazioaren arabera. Hain zuzen ere, bi hilabete horietan afiliazioaren hazkundera %2,0koa izan zen, aurreko hilabeteetako antzekoa, baina kontuan hartu behar da afiliazio berri horren zati handi bat zaintzaile ez-profesionalei eragiten dien lege aldaketa baten ondorio zuzena dela, pertsona horien kotizazioa Espainiako gobernuaren esku geratzen baita orain. Pertsona horien igoera hori zuzendu ondoren, bihileko horretako afiliazioaren igoera %1,2koa da, hirugarren hiruhilekoko baino bi hamarren txikiagoa.

Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak alde batera utzita, zeinak barnean hartzen baitituzte zaintzaile ez-profesionalak eta %11,0 igo baitziren, igoera handiena izan duten afiliazioaren atalak jarduera artistikoak (%4,6), higiezin arlokoak (%3,4), hezkuntzakoak (%3,3) eta ostalaritzakoak (%3,2) izan dira. Aitzitik, beherakadak esanguratsuak izan dira finantza eta aseguru jardueretan (-%1,2).

BPGaren eta enpleguaren arteko erlazioak pentsarazten du lan faktorearen itxurazko produktibitate irabazia %0,5 izan zela hirugarren hiruhilekoan, aurreko bi aldien antzekoa, eta nahiko apala batez besteko historikoarekin alderatzen bada, %1,0 ingurukoa izan baita. Produktibitatearen apaltze horrek zerikusi zuzena du industriaren egoerarekin; izan ere, sektore horrek lortu izan ditu, tradizionalki, eraginkortasun irabazi handienak, baina, urtea hasi zenetik, gutxieneko aurrerapenak baino ez ditu lortu bere produktibitatean, negatiboak izan ez direnean. Arrazoia da ekoizpena leuntzearekin batera ez dela plantillen murrizketarik gertatu, eta horiek bere horretan diraute ekonomia jarduera noiz suspertuko zain. Beste aldetik, eraikuntzak eta zerbitzuek beren produktibitatea hobetzea lortu zuten, hobekuntza ohiko balioen ildotik kokatuz (%0,6 eta %0,8, hurrenez hurren).

Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegitik, hirugarren hiruhilekoko hazkunderaren osaera aurreko hiruhilekoaren oso antzekoa izan zen; hala, barne eskariak dinamismo oso esanguratsua erakutsi zuen berriro eta kanpo eskariak hamarren bat baino ez zion ekarri hazkunderari. Ekarpenean apala bada ere, aipatzekoa da kanpoko saldoak ekarpen positiboa egiten diola BPGari; izan ere, iraganean, ingurunearekiko hazkunde diferentzialak inportazioak areagotzea ekartzen zuen eta horrek bizitasuna kentzen zion BPGari. Inportazioen erreakzio hori ez da orain hainbesteko intentsitatearekin gertatzen ari eta horrek azaltzen du, hain zuzen ere, inguruko herrialdeekiko hazkunde diferentzialaren zati bat. Izan ere, EAEko esportazioak eta inportazioak, termino

errealetan, oso antzeko ehunekoetan aldatu dira: hirugarren hiruhilekoan, $-\%0,9$ eta $-\%1,0$ izan ziren, hurrenez hurren.

Barne eskariak geldiarazi egin zuen 2018ko erdialdetik bizi zen moteltzeko joera eta urte arteko tasan $\%2,0$ ko hazkundea izan zuen, aurreko datua berdinduz. Bultzada galera hori handiagoa da kapital eraketa gordinean, urtebeteko epean erdira murriztu baitu bere hazkunde erritmoa. Aitzitik, azken kontsumoko gastuak ia ez du aldatu aurreko bi hiruhilekoetan eskuratu zituen erregistroak.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	2,8	3,0	3,0	2,6	2,2	2,2	2,1
Gastua azken kontsumoan	2,9	2,5	2,4	2,2	2,1	1,9	2,0
- Familien gastua kontsumoan	3,1	2,7	2,6	2,5	2,2	1,9	1,8
- Adminis. gastua kontsumoan	2,1	1,6	1,7	1,3	2,0	2,0	2,4
Kapital eraketa gordina	3,1	4,7	4,8	4,6	4,0	2,5	2,2
- Ekipamendu ondasunak	3,5	3,7	3,4	2,3	3,3	2,2	0,8
- Gainontzeko inbertsioa	2,9	5,2	5,6	6,0	4,4	2,6	2,9
Barne eskaria	2,9	3,0	3,0	2,8	2,6	2,0	2,0
Esportazioak	4,8	3,0	2,1	0,7	-1,4	2,8	-0,9
Inportazioak	5,0	3,0	2,2	1,1	-0,8	2,6	-1,0

Iturria: Eustat.

Azken kontsumoaren egonkortasunak bilakaera kontrajarriak ezkututzen ditu berau osatzen duten bi osagaietan. Alde batetik, familien kontsumoak bere hazkunde erritmoa leuntzen jarraitzen du ($\%1,8$) eta BPGaren hazkundearen ($\%2,1$) azpitik dago orain, argi eta garbi. Portaera horrek familien zorpetze handiagoaren arriskua urruntzen du, haien kontsumoa enpleguaren igoerara ($\%1,6$) eta soldata errealen igoera arinera egokitzen baitute. Bestalde, administrazio publikoen kontsumo gastuak $\%2,4$ egin zuen gora, aurreko hiruhilekoetakoa baino balio handiagoa baita, nahiz eta urtean zehar egindako ordainketa egutegiak gorabeherak eragin ohi dituen agregatu makroekonomiko horren bilakaeran.

Dagoeneko adierazi denez, kapital eraketa gordina dezelerazio nabarmeneko fasea izaten ari da, 2018ko hirugarren hiruhilekoan erregistratutako %4,8tik aurtengo aldi bereko %2,2ra eraman duena. Une honetan, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak ahultasun handia erakusten du, nazioarteko ingurunean bizi den ziurgabetasunaren ondorioa dena. Brexit-a eta Txinaren eta AEBen arteko merkataritza harremanak zehazteko bideak, orain bideratuak diruditen arren, hirugarren hiruhilekoan segurtasunik eza sortu zuten, eragileen igurikimenak geldiarazi zituen eta inbertsio proiektu ezberdinak martxan jartzea geldiarazi zuena. Beste aldetik, inbertsioaren gainerako zatiak, eraikuntzan egindakoak barne hartzen baitu, joera dinamikoari eutsi zion eta %2,9 areagotu zen, aurreko datutik pixka bat gorago, nahiz eta 2018ko emaitza onetik urrun.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	2,3	1,9	-0,5	3,4	1,2	1,9	1,6
Txikizkako merkataritza indizea	1,7	0,7	-1,0	2,6	2,1	0,6	2,1
Kontsumo ondasunen ekoizpena	5,4	5,5	9,8	4,6	1,8	5,2	1,5
Kontsumo ondasunen inportazioa	4,2	-3,5	-7,1	-0,4	-1,5	0,3	1,9
Turismoen matrikulazioa	7,3	4,6	10,8	-11,3	-4,4	-1,0	-7,9
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	3,3	4,3	9,6	-5,4	1,1	-0,2	-2,6
Ekipo ondasunen inportazioa	5,5	6,5	4,4	4,7	9,1	9,3	5,2
Zamaketakara ibilgailuen matrikulazioa	7,8	18,0	25,9	3,6	-2,8	-18,7	-20,5
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	26,7	20,3	16,7	3,6	30,0	-1,6	-23,2
Lizitazio ofiziala	75,1	-26,8	-39,6	-62,9	32,2	-3,9	-5,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Informazio estatistiko berrienak berresten du kapital eraketa gordinak intentsitatea galdu duela urtean zehar. Izan ere, ekipamendurako ondasunen inportazioak %5,2 igo ziren hirugarren hiruhilekoan, urteko lehen erdian erregistratutako %9,2aren nabarmen azpitik. Era berean, kargako ibilgailuen matrikulazioak haien beherakada sakontzen du hilabeteak igaro ahala, neurri batean dieselaren krisiak eta automobilgintzak bizi duen egiturazko aldaketak eraginda. Eraikuntzan eginiko inbertsioarekin lotura duten estatistikak, sektorearen adierazle aurreratuak

baitira, erorketa fasean sartu dira, hala etxebizitza berriak eraikitzeko baimenei dagokienez (%23,2 jaitsi ziren), nola lizitazio ofizialari dagokionez (%5,8 murriztu zen). Hala eta guztiz ere, bi estatistika horiek gorabehera handiak izan ohi dituzte beren bilakaeran, eta, beraz, ez da berehalakoa inbertsio datuetara eramatea.

Barne eskariaren sendotasuna kanpo-saldoaren ekarpen txiki batekin osatu zen, hamarren batetik gorakoa izan ez zena. Brexitak sortutako ziurgabetasunak, merkataritza alorreko gerrak eta Europan (Italiaren eta Europako Batzordearen artekoa) eta beste arlo ekonomiko batzuetan (Iran) izandako zenbait tirabirek nazioarteko merkataritza geldiarazi dute, Europan eragin bereziki negatiboa izanik, munduko potentzia esportatzaile nagusia baita. Euskadi ez da salbuespena eszenatoki horretan eta haren esportazioak, termino errealetan, %0,9 murriztu ziren hirugarren hiruhilekoan, baina inportazioak %1,0 jaitsi ziren; beraz, ekarpenari dagokionez, saldoa positiboa izan zen, txikia izan arren.

Termino nominaletan, hiruhilekoko esportazioen emaitza -%0,2 izan zen, 2018ko balioetatik urrun. Turismoaren datu onek iradokitzen dute zerbitzuen balantza positiboa izan zela, baina ondasunen merkataritzak aipatutako inguruabarren eragina jasan zuela. Zehazki, atzerriko ondasunen salmentei buruzko informazioak adierazten du aldi horretan beherakada esanguratsua izan dela (-%5,6), nahiz eta fakturatutako 5.821 milioi euroak hirugarren hiruhileko batean lortutako bigarren zifrarik onena izan, 2018koaren atzetik.

Esportazioen jaitsiera energia ondasunetan zein gainerakoetan gertatu zen. Lehenengo kasuan, urte arteko beherakada %17,5ekoa izan zen balioan, eta %13,3koa, berriz, bolumenean. Beraz, prezio efektu bat egon zen, baina horrek ez du justifikatzen jaitsiera hori. Hain zuzen ere, petrolio upelaren prezioa 2018ko hirugarren hiruhilekoan 75,1 dolarretik 62,2 dolarrera igaro zen 2019ko epe berean, nahiz eta euroaren balio galerak, moneta horrekiko, erregai mineralen merkatzea konpentsatu zuen hein batean.

Produktu energetikoak alde batera utzita, atzerrian egindako salmenten murrizketa %4,3koa izan zen. Emaitza onenak garraio-materialen multzoan lortu ziren (%14,1), ibilgailu automobilak isurien araudi berrira egokitzeko orduan zailtasunak dituzten arren. Azken horien salmentak %0,1 baino ez ziren handitu eta trenbideetako ibilgailuak izan ziren atalaren igoera hori eragin zutenak, hirugarren hiruhilekoan eskuratu zuten %140,8ko hazkundeari esker, aurreko hiru aldietan erregistratu zituzten aparteko beste zifra batzuekin batera. Guztira, kapitulu hori salmentetan 300 milioi eurora hurbildu zen, eta, berriro ere, Erresuma Batua izan zen salmentaren hartzaile nagusia.

Aitzitik, makinen eta aparatuen salmentak nabarmen egin du behera hiruhilekoan (-%9,3), aurreko zortzi aldietan lortutako emaitza onetatik guztiz aldentuta. Metal arruntek eta haien manufakturek ere beherakada handia izan zuten aldi horretan (-%13,7), eta horrek urteko lehen erdiko datu txarrak areagotzen ditu. Orobat, plastikoeak eta kautxuak (-%25,1), produktu kimikoeak (-%9,8) eta papereak (-%1,9) ere beren esportazioak murriztu zituzten hirugarren hiruhilekoan. Aitzitik, nekazaritza-produktuek (%13,8) eta bestelako manufakturek (%7,7) atzerrian egindako salmentak hobetu zituzten.

Esportazioen jaitsierak eragina izan zuen bai herrialde garatuetan bai, bereziki, garatzeko bidean dauden herrialdeetan. Lehenengo kasuan, beherakada %3,8koa izan zen, eta bigarrenean, berriz, %13,2koa. Horren ondorioz, ELGEko herrialdeak indartu egiten dira EAEko produktuen helmuga gisa, esportatutako produktu guztien %82,6 herrialde horietara bidaltzen baitira. Ehuneko hori ez da erregistratu den handiena, baina bai hirugarren hiruhileko batean jasotako altuena.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2018		2019		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	10,5	6,8	3,7	-3,8	5,4	-5,6	5.820.525
ELGE	10,6	7,9	6,3	-3,2	5,9	-3,8	4.808.741
Europar Batasuna	9,4	7,7	6,3	1,2	10,9	-0,7	4.020.226
Frantzia	12,4	1,6	-7,6	-6,5	3,0	3,1	930.988
Alemania	3,1	5,2	3,4	3,0	7,4	-5,4	854.957
Erresuma Batua	16,6	14,5	20,6	14,6	54,9	38,0	620.879
Italia	2,1	13,8	6,2	-6,0	-2,7	-13,8	252.844
AEB	18,5	16,4	9,3	-14,0	-18,3	-19,4	392.169
ELGETik kanpokoak	9,9	2,2	-7,7	-6,5	2,9	-13,2	1.011.784

Iturria: Eustat.

AEBekiko merkataritza harremanak ez daude bere unerik onenean eta herrialde horretara bidalitako salmentak %10,0tik gorako erritmoan murrizten ziren, hirugarren hiruhilekoz jarraian. Emaitza hori oso urrun dago 2017an eta 2018an lortu ziren emaitza onetatik. Aurreko buletineta adierazi zen bezala, herrialde horretara egiten diren esportazioetan erregai mineralek oso pisu handia dute, salmenta guztien herena bereganatzen baitute. Produktu horien salmenta %19,6 murriztu zen, neurri batean, hiruhileko horretan ezagutu zuten merkatzearen ondorioz.

Herrialdera esportatzen diren beste kapitulu nagusietako batek ere, galdaketa manufakturrek, beherakada nabarmena izan zuten hiruhilekoan (-%26,3), baita makineria elektrikoak (-%59,4) ere. Aitzitik, makinek eta aparatu mekanikoez merkatu horretan txertatzen jarraitu zuten eta salmentak %11,4 handitu ziren; beraz, AEBetara bidaltzen den EAEko esportazio guztiaren %21,3 biltzen dute jadanik.

Beste eremuekin alderatuta, Europaren portaera ez zen hain negatiboa izan eta salmentak soilik %0,7 murriztu ziren. Deigarria da ibilgailu automobilen portaera ona, salmentak %7,6 hobetu baitzituzten, lau hiruhilekotan etengabe behera egin ondoren. Hori da Europara bidalitako esportazioen egituran pisu handiena duen kapitulua, guztizkoaren %26,4 hartzen baitu. Eraitza on hori egituran pisu nabarmena duten gainerako ataletan izan ziren beherakadekin konpentsatu zen. Hala, makineria mota biek %10,0tik zertxobait beherako erorketak izan zituzten, eta galdategia eta haren manufakturak %11,0 inguru jaitsi ziren, erregai mineralak bezala. Kautxuak eta bere manufakturrek esportatutako balioaren %35,4 galdu zuten, hainbat hiruhilekoko hazkundearen ondoren.

Jaitsiera orokortuen eszenatoki batean, Alemania salbuespena izan zen eta herrialde horretara bidalitako salmentak %3,1 igo ziren. Herrialde horrekiko merkataritza harremanak ibilgailu automobiletan oinarritzen dira batez ere, salmenta guztien erdiak biltzen baitituzte. Atal horren emaitzak %19,9 hobetu ziren hirugarren hiruhilekoan eta aurreko hiruhilekoko datu positiboari jarraipena eman zion. Makineriak ere gorakada nabarmena izan zuen (%8,9). Aitzitik, kautxuaren esportazioak %39,7 murriztu ziren, bigarren hiruhilekoan gorakada handia izan ondoren, eta galdaketarekin lotura duten bi kapituluek %20,0 baino gehiago murriztu zuten emaitza.

Frantziako merkatuak amaiera eman zien emaitza onei eta hirugarren hiruhilekoan %5,4ko beherakada jaso zuen, urte arteko tasan. Herrialde horretara esportatzen diren kapitulu nagusien artean, makinek eta aparatu mekanikoez soilik lortu zuten salmentak handitzea (%4,3). Ibilgailu automobilerik, ekonomia horretara esportatutako guztiaren %16,4 biltzen baitute, Frantzian saldutako balioa %5,3 murriztu zuten, eta galdategiari lotutako partiden beherakadak, berriz, %10,0 baino gehiago uzkurto ziren. Azkenik, erregai mineralen salmenta, gorabehera handiak izan ohi dituen, %15,5 murriztu zen.

Zalantzarik gabe, EAEko kanpo-merkataritzak bizi duen paralisiaren salbuespen nagusia Erresuma Batua da. Merkatu horretan, euskal produktuen salmentak %38,0 igo ziren hirugarren hiruhilekoan eta horrek jarraipena ematen die aurreko aldiakotako igoera nabarmenei. Hazkunde handi horrek, ia eskusiboki, 222 milioi euroko balioa duten trenbiderako ibilgailuen salmentari erantzuten dio, hau da, herrialde horretara egindako esportazio osoaren herena baino gehiago. Aitzitik, esportazioen egituraren beste osagai handiak, ibilgailu automobilerik, %11,4 murriztu zuen

merkatu horretan saldutakoaren balioa. Era berean, makinek eta galdaketek aldakuntza-tasa oso negatiboak erregistratu zituzten.

Italiak emaitza txarrak pilatzen jarraitu zuen eta herrialde horretara esportatutako salmentak %13,8 murriztu ziren hirugarren hiruhilekoan, 253 milioi eurotan geratu arte. Herrialde horretara esportatzen diren lau atal nagusiek tamaina handiagoko edo txikiagoko jaitsierak izan zituzten urte arteko tasan. Hala, ibilgailu automobilen salmenta %14,0 murriztu zen, makina eta aparatu mekanikoena %10,3, kautxuarena %37,8 eta burdinaren eta altzairuaren galdaketarena, azkenik, %3,5.

Garatzeko bidean dauden herrialdeetarako salmentek intentsitatea galdu zuten eta %13,2 murriztu ziren 2018ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Beherakada horren arrazoi nagusia erregai mineralen bilakaera gorabeheratsua da. Zehatz-mehatz adierazita, erreferentziako hiruhilekoan, ondasun horien esportazioak %77,9 murriztu ziren, aurreko hiru hiruhilekoetan izandako beherakada handiei jarraipena emanaz. Izan ere, eremu horretara bidaltzen diren esportazioen egituran, erregai mineralak ia %10,0 izatetik %1,6 soilik izatera igaro dira. Beste kapitulu garrantzitsu batzuek, hala nola ibilgailu automobilerik (-%5,8) eta galdaketako manufakturek (-%17,5) ere, beherakada esanguratsuak izan zituzten. Aitzitik, makina eta aparatuen esportazioak, guztizkoaren herena baino zertxobait gehiago baita, gora egin zuen.

Txinako merkatuak ez zuen bigarren hiruhilekoko datu ona finkatzea lortu eta hirugarrenean %0,6ko jaitsiera leuna eskuratu zuen, herrialdeari esportatutako 111 milioi euroko zenbatekoarekin. Aireko nabigazioaren kapituluak azpimarratu behar da, gora egin zuelako nabarmen (%67,5), eta herrialderako esportazioen ia %10,0 biltzen du orain. Makineriaren barruan, elektrikoak emaitza ona izan zuen (%22,3), baina mekanikoak, Txinara bideratutako guztiaren herena biltzen duena, %12,0 egin zuen behera. Azkenik, galdaketako manufakturek %43,6 handitu zuten saldutakoaren balioa.

Esportazioek bezala, inportazioek ere beherakada nabarmena izan zuten 2019ko hirugarren hiruhilekoan, kasu horretan %7,2koaren ingurukoa. Azken hiru urteetako lehen jaitsiera da hori. Guztira, atzerrian egindako erosketak 4.720 milioi eurokoak izan ziren, azken zortzi hiruhilekoetako kopururik txikiena dena. Inportatutako erregai mineralen balioa %11,0 murriztu zen eta produktu ez-energetikoena, berriz, %5,6. Erosketen murrizketa orokorra izan zen, produktu kimikoen (%2,4) eta makina eta aparatuen (%1,8) salbuespenekin. Metal arruntetan eta horien manufakturetan (-%11,4) eta nekazaritza produktuetan (-%11,5) izandako beherakadak nabarmentzen dira.

Inportazioen beherakada antzekoa izan zen herrialde garatuetan (-%7,1) eta gorabidean dauden ekonomietan (-%7,5), aurreko aldietako bilakaeratik guztiz aldentuta. Erregai mineralen erosketaren jatorria aldaketa handirik gabe mantendu da; hala bada, kopuru osoaren bi heren garapen bidean dauden herrialdeetatik inportatu ziren eta gainontzeko herena ELGEko herrialdeetatik. Errusia eta Libia izan dira erregai mineralen hornitzaile nagusiak, ondoren Mexiko, AEBak eta Nigeria kokatu zirela.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2019					III
			IV	I	II	III		
GUZTIRA	20,5	8,8	10,6	5,1	4,7	-7,2	4.719.832	
ELGE	17,8	4,4	6,7	1,2	10,6	-7,1	2.987.349	
Europar Batasuna	13,4	-0,8	-2,1	3,3	4,4	-8,2	2.301.287	
Frantzia	6,8	4,9	-0,5	6,3	7,5	-7,7	645.211	
Alemania	12,0	5,6	-3,2	-1,3	-7,9	-11,8	384.410	
Erresuma Batua	62,8	-43,0	-45,6	-28,4	-18,2	-21,5	158.814	
Italia	7,7	6,9	-2,5	-2,0	-3,6	-11,7	210.162	
AEB	18,8	13,5	51,1	85,6	152,5	81,6	214.375	
ELGETik kanpokoak	26,9	18,4	19,3	14,3	-6,2	-7,5	1.732.483	

Iturria: Eustat.

Beste hiruhileko batez, AEBetatik etorritako inportazioek igoera handia lortu zuten, erregai mineralen erosketari esker, jatorria herrialde horretan duten inportazio guztien %59,2 ondasun mota horretakoak baitira. Aitzitik, Europan egindako erosketak %8,2 murriztu ziren eta jaitziera esanguratsuak izan ziren herrialde nagusi guztietan, bereziki Erresuma Batuan, lehenago ere adierazi denez, erregaien jatorria beste herrialde batzuetara lekualdatu zelako.

Nazioarteko eragiketen merkataritza saldoa 1.101 milioi eurokoa izan zen, Euskadiren aldekoa. Produktu ez-energetikoen saldoa 1.980 milioi eurokoa izan zen, eta energiarena -880 milioi eurokoa. Ohi bezala, herrialde garatuekiko merkataritzan saldo positiboa lortzen da (1.821 milioi euro) eta defizita, ordea, garapen bidean dauden herrialdeekiko trukeetan (-721 milioi euro). Frantziarekin (471 milioi) eta Erresuma Batuarekin (462 milioi) lortzen diren saldo handiak eta Txinarekin eta Errusiarekin (251 milioi eta 160 milioi, hurrenez hurren) dituzten defizit handiak nabarmentzen dira.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Inflazioa %2,0aren ingurura igotzeko Europako Banku Zentralak (EBZ) neurri hedakorrak abian jarri dituen arren, datuek adierazten dute inflazioa helburu horretatik urrun dagoela oraindik, baita erritmo onean hazten jarraitzen duen EAEko ekonomia batean ere. Analisia barne produktu gordinaren deflatorearekin hasita, seinalatu behar da hirugarren hiruhilekoan hazkunde tasa moteldu egin zela, %0,9raino, aurreko hiruhilekoetan erregistroak %1,1ean kokatu ondoren. Neurritasun horren erantzuleak kontsumo pribatuaren deflatorea eta kapitalaren eraketa gordinarena izan ziren, %0,8ko balioekin eta hiru hamarreneko beherakadekin bi kasuetan. Aitzitik, kontsumo publikoaren deflatoreak bere beheranzko joera atzean utzi zuen eta %1,8tik %2,1era handitu zen.

KPIari dagokionez, adierazle horrek inflazio presioen zantzurik erakutsi gabe jarraitu zuen, eta azken hilabeteetan izan zuen apaltzeko joera bera aurkeztu zuen, eta azaroan, datuak ditugun azken aldia hori baita, %0,8an kokatu zen. Erregistro hori oso baldintzatuta egon zen, beste behin ere, erregaien prezioek izan zuten bilakaerarekin; hilabete askoan aldakuntza tasa positiboetan egon ondoren, berriro ere merkatu egin zirelako. Gainera, azaroko datuak energiaren prezioen jaitsiera -%3,6raino zabaltzen du.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,1	0,6	0,8	0,8
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	1,0	1,1	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,3	0,6	1,0	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,2	0,4	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,7	1,7	1,8	0,8
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	1,7	-1,5	-1,0	-0,2
- Landu gabeko elikagaiak (%7,6)	3,7	2,9	0,1	1,0	2,9	0,2
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	2,9	-3,1	-3,6	-0,4

Iturria: INE.

Zehazkiago adierazita, egia bada ere petrolioaren prezioak hegakortasun handia izan zuela, hirugarren hiruhilekoan zehar joera orokorrak nagusiki beheranzko ibilbidea izan zuen. Hala eta

gutziz ere, lehengai horren prezioen atonia hori aldatu egin zen irailaren erdialdean, Saudi Arabiako petrolio azpiegiturak jasan zuen eraso terroristaren ondorioz, herrialde hori munduko ekoizle nagusietako bat baita. Horiek horrela izanda, petrolio gordinaren prezioa 65 dolarren inguruan kokatu zen, eta geroztik behera egin zen, azken egunetan balio horiek berriro hartu eta gainditzeko, LPEEK eta haren aliatuek ekoizpena murrizten jarraitzeko duten ikuspegiaren aurrean.

Inflazioaren tasa, gorago ere idatzi den bezala, espero zitekeenaren azpitik kokatu zen azken hilabeteetan, energia osagaiaren balio oso txikiek eraginda. Horixe egiaztatzen dute elektrizitatearen, gasaren eta erregaien prezioek. Bilakaera horren ondorioz, KPIari buruzko proiektzioa beherantz berrikusten jarraitu zen.

Era berean, azpiko inflazioa maila neurritsuan mantendu zen azken hilekoetan eta balio egonkor samarrak ezartzen jarraitu zuen, %1,2 ingurukoak. Osagaiei dagokienez, zerbitzuek egonkortasun nabarmena dute eta azaroan %1,8 igo ziren, urte hasieratik erregistratutako tasaren antzekoa, turismoarekin zerikusia duten partidei lotutako aldaketa iragankor batzuk gertatu ziren arren. Era berean, inflazio egonkorrena osatzen duten gainerako atalek, hala nola industria alorreko ondasun ez-energetikoez eta elikagai landuek, bizkortze arina erakutsi zuten azken aldian.

Aitzitik, hondar inflazioak, energiaren prezioek izan zuten beherakada nabarmenetan oinarrituta, 2016ko erdialdetik ezagutu dituen baliorik negatiboena erregistratu ditu azken hilabeteetan, inflazio globalari egiten dion ekarpen negatiboa handituz. Aitzitik, landu gabeko elikagaiek beren moteltzeko joera atzean utzi zutelako baieztatu zuten, eta azaroan %2,9an kokatu zuten urte arteko tasa.

Elektrizitatearen eta erregaien prezioan izandako beherakadaren ondorioz, partida horrekin lotura estua duen talde bat, hots, etxebizitzarena, izan zen urte arteko aldakuntza tasa txikienak izan zituena, -%4,0koa izan baitzen azaroan. Etxebizitzaz gain, garraio eta edari alkoholodunen eta tabakoaren taldeak ere nabarmendu beharko lirateke, indize orokorrari egiten dioten ekarpen negatiboengatik. Lehenengoa, erregaiekin duen harreman zuzena dela eta, azaroan %2,2an kokatu zen, 2017ko eta 2018ko batez bestekoaren azpitik; edari alkoholodunak eta tabakoa, berriz, %0,3ko jaitsiera txiki bat izan zuen. Talde horietatik guztiz aldentuta, elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek eragin positiboa izan zuten inflazioan, fruten prezioen igoeraren ondorioz, eta urte arteko aldakuntza tasa %1,9koa izan zen, jatetxeen eta hotelen taldeak eskuratu zuen tasa bera.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019			Azaroa
			IV	I	II	III		
Indize orokorra	2,0	1,6	1,6	1,3	1,1	0,6	0,8	
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,2	1,5	0,9	0,7	0,3	0,9	1,9	
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,7	2,2	2,0	1,4	0,1	-0,3	-0,3	
Jantziak eta oinetakoak	0,7	1,1	1,0	0,8	1,1	1,0	0,9	
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	3,7	2,6	3,3	2,0	0,1	-3,4	-4,0	
Etxeko hornidura	-0,3	0,3	0,7	0,8	0,8	1,3	1,3	
Medikuntza	1,1	0,2	0,4	0,0	0,0	0,6	1,1	
Garraioa	4,3	3,4	2,7	3,0	3,3	1,8	2,2	
Komunikazioak	1,3	2,4	2,2	2,0	0,2	0,4	0,8	
Aisia eta kultura	1,9	-0,4	-0,5	-1,4	-0,1	0,5	0,4	
Irakaskuntza	1,6	1,0	0,8	0,8	0,8	0,9	1,4	
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,8	1,9	2,1	1,7	2,3	2,0	1,9	
Besteak	0,7	0,7	1,2	1,5	1,9	1,4	1,3	

Iturria: INE.

Kontsumoko prezioen indizeak ez bezala, industriako ondasunen prezioek zertxobait igo zituzten inflazio presioak eta urrian erregistratu zen apirilaz geroztik izandako baliorik handiena (%2,0). Ekipamendurako ondasunek izan ezik (%1,3), haien aldakuntza tasa hamarren bat murriztu baitzuten, industria prezioen eraketa-prozesuan parte hartzen duten gainerako kideek erregistro altuagoak aurkeztu zituzten urrian, eskuragarri dauden azken datuak hileko horretakoak baitira. Guztien artetik, energiaren prezioaren aurrerapena nabarmendu zen, bere goranzko joera berretsi baitzuen.

Hitzarmen kolektiboetan adostu diren soldata igoeren arabera, azken urteetako goranzko joera leunak jarraipena izan du aurrean, %2aren inguruko batez besteko igoerekin. Igoera horiek, beste behin ere, handiagoak izan ziren urtean zehar sinatu diren hitzarmenetan (%2,3). Urrira arte, hitzarmen horien baldintzek eragina zuten 90.000 langilerengan baino gehiagotan. Esan behar da hitzarmen baten pean dauden EAEko langileen artean, ia erdia (%49,2) indarrean dauden hitzarmenekin zegoela, eta, beraz, hitzarmena eguneratuta duten landunen kopurua gero eta handiagoa da.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2017	2018	2019
Indarrean dauden hitzarmenak:	0,6	1,0	1,5	1,9	2,0
- Urtean zehar sinatutakoak	0,7	1,1	1,7	2,2	2,3
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	0,6	1,0	1,5	2,0	2,1
- Enpresako hitzarmenak	0,6	1,1	1,5	1,6	1,8

(*) 2019ko urria arte adostutako lan hitzarmenak
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, Espainiako Estatistika Institutuak egiten duen langile bakoitzeko lan kostuen estatistikak adierazten du hazkunde erritmoa moteldu egin dela aurreko aldiarekin alderatuta, azken horretan batez besteko hazkundea bikoiztu egin baitzen hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (%2,8 eta %1,4, hurrenez hurren). Igoeraren leuntze hori lan egindako ordu bakoitzeko lan kostura ere hedatzen da, nahiz eta kasu horretan igoerak nabarmen handiagoak izan. Zehazki, orduko soldata kostua %8,0 hazi zen bigarren hiruhilekoan eta %5,0 hirugarrenean. Langile bakoitzeko eta orduko kostuaren arteko aldea benetan lan egindako orduen kopuruaren jaitsieraren ondorio da, aurreko hiruhilekoari gehitzen zaiona eta azken bi urteetako egonkortasunetik aldendu dena.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
Lan kostu guztiak langileko	0,5	2,5	3,7	3,1	1,7	2,8	1,4
- Soldata kostua guztira	0,1	2,4	3,6	3,2	1,5	3,2	0,8
- Bestelako kostuak	1,6	2,9	3,8	2,8	2,3	1,8	3,0
Lan kostu guztiak orduko	0,2	2,3	4,1	2,3	0,0	7,5	5,5
- Soldata kostua guztira	-0,2	2,1	4,1	2,4	-0,2	8,0	5,0
- Bestelako kostuak	1,2	2,7	4,4	2,0	0,5	6,3	7,2
Adostutako lan orduak	-0,1	0,3	-0,2	0,5	-0,1	-0,3	0,6
Benetan lan egindako orduak	0,0	0,3	-0,5	0,8	1,7	-4,5	-3,9

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Zerga bilketari dagokionez, aurtengo urrira arte foru ogasunek 12.744,6 milioi euro eskuratu zituzten guztira, iazko lehen hamar hilabeteetan baino ia 300 milioi euro inguru gehiago direlarik. Horrek erakusten du ekonomiaren bizitasuna zertxobait apaldu den arren, diru sarrereren hazkunde erritmoa ez zela murriztu, eta, gaur egun arte, %2ko aldakuntza-tasa gainditzen duela. Horiek horrela izanda, diru sarrera horien bilakaera Finantzen Euskal Kontseiluak berriki egindako gehikuntza aurreikuspenekin batera doa, urte honetarako %2,7ko hazkundera aurreikusi baitzuten.

Analisia PFEZ zergarekin hasita, aipatu behar da zerga horrek bilakaera positiboa izan zuela aipatutako aldirian (%3,3), enpleguaren igoeraren eta soldaten igoera nominal neurritsuen ondorioz. Horregatik guztiagatik, lan etekinengatik eginiko atxikipenak izan ziren hazkunderik handienak izan zituztenak. Aitzitik, inbertsio funtsetako ondare irabaziengatik eginiko atxikipenak eta kapital higigarriaren etekinengatik eginiko atxikipenak tasa negatiboetan mantendu ziren, nahiz eta egia den figura horiek nolabaiteko irregulartasuna erakusten dutela.

Aitzitik, zuzeneko zergapetzearen beste osagai handiak, hau da, sozietateen zergak, balio negatiboak erregistratzen jarraitu zuen. Jaitsiera hori kapital higigarriaren etekinen atxikipenen bilakaera negatiboaren (-%25,3) eta kuota diferentzial garbiaren (-%4,5) diru sarrereren beherakadaren ondorioa izan zen. Aipatu den azken kontzeptu horrek enpresen mozkinak zergapetzen ditu.

Bestalde, zeharkako zergapetzearen atalean nabarmentzekoa da BEZak erregistratu zuen goranzko joera (%3,7) finkatu egiten dela, diru-sarrereren gehikuntzari esker. Izan ere, itzulketek izan duten bilakaerak oso baldintzatuta daude diru sarrera horiek eta itzulketen igoera horiek eragotzi egin zuten zerga horrek aurreko aldietan gora egitea.

Azkenik, zerga bereziak (%10,7), azken hilabeteetan gertatu ohi den bezala, gehien handitu ziren zergak izan ziren, eta berriz ere beraien diru bilketak bi zenbakiko tasak eskuratu zituzten. Eraitza on horien erantzule nagusia hidrokarburoak izan ziren, haien kontsumoa nabarmen areagotu ondoren. Aitzitik, elektrizitatearen gaineko zergaren diru bilketak beherakada nabarmena jaso zuen, argindarraren prezioak aurreko urteko epe berean baino nabarmen txikiagoak izan zirelako.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-urria)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2018	2019	% Ald. 19/18
PFEZ	4.366.981	4.509.001	3,3
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.174.087	4.406.954	5,6
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	164.567	122.930	-25,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	69.576	70.805	1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	43.515	27.828	-36,0
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	43.287	55.627	28,5
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	144.401	151.372	4,8
- Kuota diferentzial garbia	-272.451	-326.515	-19,8
Sozietateen gaineko zerga	1.455.236	1.346.401	-7,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	164.567	122.930	-25,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	69.576	70.805	1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	43.515	27.828	-36,0
- Kuota diferentzial garbia	1.177.579	1.124.839	-4,5
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	28.936	39.795	37,5
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	109.172	94.693	-13,3
Ondarearen gaineko zerga	181.626	165.795	-8,7
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.565	25.132	2,3
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	24.969	11.474	-54,0
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA	6.191.486	6.192.292	0,0
BEZaren bertoko kudeaketa	3.444.897	3.532.424	2,5
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	130.547	132.138	1,2
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	38.168	38.983	2,1
Garraioak jakin batzuen gaineko zerga bereziak	21.568	23.302	8,0
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.396.375	1.546.411	10,7
Aseguru sarien gaineko zerga	63.579	64.031	0,7
Joko jardueren gaineko zergak	5.848	5.669	-3,1
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.785	2.969	-21,6
Iraungitako zergak	-8.104	-2.739	66,2
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	5.096.663	5.343.188	4,8
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	96.058	88.463	-7,9
BERTON KUDEATUTAKO TRIBUTU ITUNDUAK	11.384.207	11.623.943	2,1
BEZaren doikuntza	1.316.371	1.405.136	6,7
Zerga berezien doikuntza	-253.983	-284.431	-12,0
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	12.446.595	12.744.648	2,4

Iturria: Foru aldundiak.

Arlo finantzarioa

Udako hilabete gorabeheratsuen ondoren, urrian eta azaroan izandako merkataritza negoziazioen bilakaerak murriztu egin zuen arriskua saihesteko nahia. Orobat, Erreserba Federalak (Fed) eta Europako Banku Zentralak onartutako diru pizgarriak abiapuntua izan ziren inbertitzaileen sentimendua pixkanaka hobetzeko. Aurreko guztiaren ondorioz, zor publikoaren errentagarritasunak eta burtsako indizeek gora egin zuten modu orokorrean, eta euroa dolarraren aldean balioa irabazi zuen.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2019					
			Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	1,50	2,50	2,50	2,25	2,25	2,00	1,75	1,75
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,50	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75
Txinako Banku Popularra	4,35	4,35	4,35	4,35	4,25	4,20	4,20	4,20
Brasilgo Banku Zentrala	7,00	6,50	6,50	6,50	6,00	5,50	5,00	5,00
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0,43	0,25	-0,33	-0,44	-0,71	-0,58	-0,41	-0,36
Espainia	1,57	1,42	0,40	0,29	0,14	0,16	0,25	0,44
Grezia	4,12	4,38	2,49	2,04	1,63	1,39	1,16	1,49
Erresuma Batua	1,19	1,27	0,84	0,60	0,49	0,49	0,63	0,71
Italia	2,00	2,77	2,10	1,54	1,03	0,83	1,04	1,35

Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Nahiz eta lan merkatua sendo mantendu zen eta herrialdearen jardura ekonomikoak erritmo nabarmenean hazten jarraitu zuen, enpresen inbertsioaren eta esportazioen ahuleziak urriaren amaieran Erreserba Federala funts federalen interes tasak oinarritzko 25 puntutan murriztera eraman zuen, %1,50-% 1,75eko urkilan kokatu arte. Interes tasen murrizketa, nolana ere, ez zen izan Fedek martxan jarri zuen mekanismo bakarra. Altxorraren bonuen erosketa ere berriro abiarazi zuen, gutxienez 2020ko bigarren hiruhilekora arte hileko 60.000 milioi dolarreko hasierako erritmoan, balantzea handitzeko eta epe oso laburrean zorraren merkatuan zeuden likidezia beharrei erantzuteko.

Brasilgo banku zentralak, ildo beretik, herrialdearen oinarrizko interes tasa %0,5 murriztu zuen, %5,5etik %5,0ra, inoizko mailarik txikiena baita, 2015ean eta 2016an izandako atzeraldi larriaz geroztik oso erritmo motelean hazten ari den ekonomia bat bultzatzeko ahaleaginean. Hau da moneta agintaritzak tasak murrizten dituen hirugarren aldia jarraian eta mugimendu horrekin enpresentzat eta familientzat kredituen kostua murriztea espero du. Orobat, inbertsioa nahiz kontsumoa sustatu nahi ditu, azken hori Brasilen ekonomiaren motorrik handiena baita.

Gainontzeko banku zentralak bere horretan utzi zituzten erreferentzia tasak. Zehazkiago adierazita, EBZk finantzaketa eragiketa nagusiei, kreditu erraztasun marjinalari eta gordailu erraztasunari aplikatu beharreko interes tasak %0,00ean, %0,25ean eta -%0,50ean utzi zituen, hurrenez hurren. Japoniako Bankuak tasak -%0,10ean mantentzea erabaki zuen epe luze batean, gutxienez 2020ko udaberrira arte, eta, kontuan hartuta jarduera ekonomikoari eta prezioei buruzko ziurgabetasuna, beste herrialde batzuetako ekonomiaren bilakaera eta urritik aurrerako BEZaren igoeraren ondorioek ez du baztertzen neurri gehigarriak sartzea, beharrezkoak izatekotan. Ingalaterrako Bankuak, azkenik, diru politikaren norabidea Brexitak eskaintzan, eskarian eta truke tasan izango dituen ondorioen arabera izango dela azpimarratu zuen. Oraingoz, erreferentziazko tasa %0,75ean utzi zuen, aldatu gabe.

Zorraren bigarren mailako merkatuan, urriaren lehen erdian, jarduera datu ahul batzuk argitaratu izanak eta AEBetako interes tasak berriki murriztu izanak errentagarritasunak beherantz eraman zituzten. Ondoren, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza negoziazioen inguruko gertakari positiboek, Brexita luzatzeko erabakiak eta ekonomia aurreratu nagusiek erakutsitako erresistentziak arriskua saihesteko nahia murriztu zuten eta zor publikoaren errentagarritasuna gorantz bultzatu zuten. Hain zuzen ere, 10 urterako Espainiako bonuaren errentagarritasuna %0,25ean kokatu zen urrian, ondoren azaroan %0,44ra arte gora egiteko, azken sei hilabeteetako errentagarritasunik handiena baita hori. Errentagarritasunaren igoera hori Alemaniako bund-era ere zabaldu zen eta horrek euroaren eremuko periferiako arrisku sariak urteko gutxieneko mailetaraino murriztea ekarri zuen. Besteak beste, Espainiako arrisku saria oinarrizko 66 puntura jaitsi zen urrian, 2018ko martxotik izan duen mailarik txikiena. Ondoren, azaroan, 80 punturaino igo zen saria. Espainiako bonuaren errentagarritasuna Alemaniakoaren aldean handiagoa izateak azaltzen du gorakada hori.

Dibisen merkatuari dagokionez, arriskua saihesteko nahi txikiagoak eta Fedek interes tasak murriztu izanak gorantz bultzatu zuten euroaren kotizazioa dolarraren aldean. Hain zuzen ere, Europako monetak 1,105 dolarrean kotizatu zuen euro bakoitzeko. Edonola ere, iraileko kotizazioarekin alderatuta nolabaiteko pisua berreskuratu bazuen ere, azken bi urteetako balio txikienen artean dago. Beste aldetik, Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko akordioa argitaratu ondoren inbertsiogileek izan zuten baikortasunak libera bultzatu zuen euroaren aldean, abuztuko kotizazioarekiko %6,3 areagotu baitzuen bere balioa, azken 10 urteetako maximoa.

Herrialde industrializatu guztien aldean, euroaren benetako truke tasa nominala %1,4 depreziatu da urtea hasi zenetik.

Burtsek ere koitunturako egoera nabaritu zuten. Izan ere, urriko lehen asteetan ziurgabetasunak beherantz bultzatu zituen indizeak, baina AEBen eta Txinaren arteko balizko merkataritza akordio baten itxaropenak eta Brexitaren gaineko luzapenak, enpresen emaitzak onak ziren testuinguru batean, indizeen gorakada eragin zuten, eta horrek sobera konpentsatu zituen lehen asteetan pilatutako jaitsierak. Goranzko joera positibo hori azaroan zehar eta Atlantikoaren bi aldeetan zabaldu zen, bi zenbakiko irabazi metatuak eskuratuta. Besteak beste, Standard & Poors 500 indizea %25,3 igo zen, Eurostoxx-50 indizea %23,4 eta Nikkei 225 indizea %16,4. Ibex 35ek, berriz, ez zuen irabazi hain apartekorik lortu, baina hiru hilabetez jarraian gorakadak kateatu zituen eta azaroa %9,5eko irabaziekin itxi zuen.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2019					
			Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,129	1,181	1,129	1,121	1,112	1,100	1,105	1,105
Yena/euro	126,7	130,4	122,08	121,41	118,18	118,24	119,51	120,35
Libera esterlina/euro	0,876	0,885	0,891	0,899	0,916	0,891	0,875	0,858
Yena/dolarra	112,2	110,4	108,1	108,2	106,2	107,5	108,1	108,9
€ efektibo nominala	96,6	99,0	97,9	97,5	98,1	97,4	97,4	96,7
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	7,4	-15,0	7,7	5,0	3,6	8,3	8,4	9,5
Eurostoxx-50	6,5	-14,3	12,7	15,5	14,2	18,9	20,1	23,4
Dow Jones	25,1	-5,6	14,0	15,2	13,2	15,4	15,9	20,3
Nikkei 225	19,1	-12,1	6,3	7,5	3,4	8,7	14,6	16,4
Standard & Poors	19,4	-6,2	17,3	18,9	16,7	18,7	21,2	25,3

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.


Euroguneko bankuen arteko merkatuan, interes tasak bitarte guztietan igo ziren urrian eta azaroan. Hala, hilabete baterako, seirako eta hamabirako euriborra, hurrenez hurren, -%0,437, -%0,343 eta -%0,272 izan zen azaroaren amaieran, baina irailaren amaieran, -%0,457, -%0,386 eta -%0,330 izan zen. Beraz, hiru hilabete daramatza igoera jarraituak biltzen. Hala eta guztiz

ere, iazko epe berean baino maila baxuagoa duenez (-%0,147 2018ko azaroan), hipoteka aldakorrek merkatu egin ziren.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteken bilakaerari dagokionez, ekainaren erdialdean Hipoteka Legea indarrean sartzeak hipoteken emakida bat-batean hondoratzea eragin zuen eta milaka eragiketaren itxiera atzeratu zuen. Izan ere, abuztuan %22,9 jaitsi zen etxebizitza erosteko hipoteken sinadura eta jaitsiera hori %23,4ra iritsi zen irailean, 2016ko uztailetik izandako jaitsierarik handiena dena. Hiruhilekoaren balantzeak %12,3ko beherakada eman zuen eta 4.165 hipoteka sinatu ziren, aurreko urteko hiruhileko berean baino 600 gutxiago eta aurreko hiruhilekoan formalizatutako ia 5.000 hipoteketatik urrun. Jaitsiera garrantzitsu hori autonomia erkidego guztietara hedatu zen, eta, horren ondorioz, urteko hirugarren hiruhilekoan, Estatu osoan, etxebizitza bat erosteko hipoteka berrien sinadura %16,6 murriztu zen.

Beste aldetik, etxebizitzak erosteko sinatu diren hipoteketan, irailean interes tasa aldakorreko hipotekak formalizatzeko erabili zen batez besteko interes tasa %2,25ekoa izan zen, orain arteko txikiena. Aitzitik, hipoteka finkoen interes tasa pixka bat handitu zen eta %3,01etik %3,08ra igaro zen. Igoera horren ondorioz, tasa finkoko hipoteken ehunekoa murriztu egin zen aurreko hiruhilekoaren ehunekoarekin alderatuta. Zehazki, hipoteka guztien %41,3 tasa finkoan formalizatu ziren, urteko bigarren hiruhilekoan formalizatutako %43,4aren aldean.

Aurreikuspenak

2019ko azken hilabeteetan, nazioarteko hainbat erakundek egindako aurreikuspenek hazkunde ertaineko igurikimenak aurkeztu dituzte, ziurgabetasun global handia ezaugarri dutenak. Beheranzko arriskuek taula makroekonomikoak mehatxatzen dituzte. Batez ere, neurri protekzionistak, Brexitari buruz argitu gabe dauden zalantzak eta nazioarteko panoraman dauden ezkutuko tentsio geopolitikoak aipatzen dira. Ingurumen, teknologia eta gizarte arloko arrisku berriak ere sartzen dira munduko ikuspegi ekonomikoan. Testuinguru horretan, epe laburreko hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusi dira pixka bat, eta, Consensus Forecastsen abenduko buletinaren arabera, munduko ekonomiaren aldakuntza tasa %2,5ekoa izango da 2019an eta 2020an.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Munduko ekonomia	3,1	2,5	2,5	2,9	2,7	2,6
AEB	2,9	2,3	1,8	2,4	1,8	2,0
Kanada	2,0	1,7	1,7	2,3	2,0	1,9
Japonia	0,3	1,0	0,3	1,0	0,6	0,6
Eurogunea	1,9	1,2	1,0	1,8	1,2	1,2
Europar Batasuna	1,9	1,3	1,2	1,8	1,4	1,4
Alemania	1,5	0,5	0,9	1,8	1,4	1,4
Espainia	2,4	2,0	1,6	1,7	0,7	1,0
Frantzia	1,7	1,3	1,2	1,9	1,2	1,2
Herbehereak	2,6	1,7	1,4	1,7	2,6	1,6
Italia	0,8	0,2	0,4	1,2	0,7	0,9
Erresuma Batua	1,4	1,3	1,1	2,4	1,8	1,8
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,1	4,0	2,0	2,1	2,3
Ekialdeko Europa	3,3	2,1	2,5	6,1	5,8	5,1
Amerika Latinoa (Venezuela ezik)	1,4	0,6	1,5	9,4	9,9	8,3

Iturria: Consensus Forecasts (2019ko abendua).

Ekonomia aurreratuetan, hazkunde ekonomikoak gora egiteko joera neurritsuari eutsiko dio, azken krisialditik onartutako ezaugarria baita, eta positiboa eta iraunkorra izaten jarraituko du. Ameriketako Estatu Batuetan hazkunde hori% 2,3koa izango da 2019an eta %1,8raino motelduko da 2020an, Consensus Forecastsen arabera. AEBetan ezarri den erreforma fiskala ekonomia

bultzatzen ari da. Dena den, zerga pizgarria moteldu egingo da datozen aldietan eta manuflakturen sektoreak jasan ditzake merkataritza gerraren ondorio negatiboak. Testuinguru ekonomikoan bizi den ziurgabetasunak atzerapauso handia dakar eragile ekonomikoen konfiantzan, enpresen inbertsioari zein etxeetako kontsumoari bizitasuna kenduz. Faktore horiek dinamismo ekonomikoaren galera handia eragin dezakete. Beste ekonomia aurreratu batzuetan, hala nola euroaren eremuan eta Erresuma Batuan, epe laburreko aurreikuspenak ere beherantz zuzendu dira 2019-2020 epemugara arte.

Moteltzeko joerak gorabidean dauden ekonomiei ere eragiten die. Izan ere, motelaldiaren ibilbidea eta larritasuna aldatu egingo dira herrialde bakoitzean merkataritzak duen pisuaren arabera. Izan ere, Txinarako oraingo hazkunde aurreikuspenak okertu egin dira aurrekoekin alderatuta eta, ELGaren datuen arabera, hazkundera %6,2koa eta %5,7koa izango da 2019an eta 2020an, hurrenez hurren. Merkataritza alorreko liskarrak are gehiago gaiztotzeak hornidura sareak kaltetuko lituzke eta konfiantzan, enpleguan eta dirusarreretan eragina izango luke. Arrisku handiena AEBek Asiako herrialde horretako inportazioei ezarritako muga-zergetan dago. Beste aldetik, eta barne mailan, Txinak erreforma sakonak beharko ditu hazkunde jasangarri, ekologiko eta inklusiboa lortzeko.

Eurogunean, Consensus Forecastsek aurreikusitako hazkunde ekonomikoa %1,2koa eta %1,0koa da 2019an eta 2020an, hurrenez hurren. Gehikuntza tasa ahula izango da eta dinamismorako perspektiba gutxikoa urte horietan. Kanpoko eskariaren okertzeak, ziurgabetasun politikoak eta eragileen konfiantza baxuak esportazioen eta inbertsioaren hazkundera drainatzen jarraituko dute. Kontsumo pribatuaren eta gastu publikoaren ekarpena familien aurrezkiaren hazkundera eta aurreikusitako zerga-politiken intentsitate txikiak mugatuko dute. Esportazioak eta enpresen inbertsioa ahuldu egingo dira nazioarteko merkataritza tentsioen, Txinako ekonomiaren motelaldiaren eta Brexit-aren konponbidearen inguruko ziurgabetasun luzearen aurrean. Apaltzeak gehien kaltetuko dituen herrialdeak Alemania eta Italia izatea aurreikusten da, kanpoko eskariarekiko duten mendekotasunagatik. Bestalde, Frantzia eta Espainia bezalako herrialdeek, beren hazkundera barne eskarian oinarritzen baita, erresistentzia handiagoa erakutsiko dute dinamismo ekonomikoaren galeraren aurrean.

Espainiako ekonomiaren hazkunde aurreikuspena, Consensus Forecastsek zenbatetsia, %2,0koa da 2019rako eta %1,6koa, berriz, 2020rako. Beste aldetik, Cepredek 2019ko eta 2020ko aldakuntza tasak %2,0an eta %1,7an kokatu ditu, hurrenez hurren. Etxeko eskariak ekonomia hazkunderaren motorra izaten jarraituko du, nahiz eta aztertutako urteetan apaltzeko joera izango duen, gero eta txikiagoak izango diren ekarpenak egingo dituelarik. Jarduera globalaren moteltzea, ziurgabetasunez beteriko nazioarteko testuinguru batean, barneko eszenategi politikoari buruzko zalantzek ere bultzatzen dute.

Lan merkatuaren esparruan, Cepredek enplegua sortzeko perspektiba argiak aurreikusten ditu, dinamismo galeraren profilarekin. Hori horrela izanda, lanaldi osoko lanpostu baliokideen aldakuntza tasa %2,2koa izango da 2019an eta %1,3koa, berriz, hurrengo urtean. Beste aldetik, langabezia tasari buruz aurkeztu dituen aurreikuspenak %14,2 dira 2019rako eta %13,8 2020rako. Zenbatespen horiek guztiak aurreko hiruhilekoaren txostenean argitaratutakoak baino zertxobait ezkorragoak dira.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019		2020				2020
	IV	2019	I	II	III	IV	
BPG	1,8	2,0	1,7	1,7	1,7	1,6	1,7
Kontsumo pribatua	1,4	1,1	1,1	0,9	0,9	0,8	0,9
Kontsumo publikoa	2,2	2,3	1,8	1,5	1,5	1,6	1,6
Kap. finkoaren eraketa gordina	1,4	2,3	2,2	2,6	3,2	3,1	2,8
- Inbertsioa ekipamenduan	1,6	3,1	1,9	2,2	3,1	3,2	2,6
- Inbertsioa landutako aktibotan	15,6	12,8	13,7	13,5	9,4	5,7	10,4
- Inbertsioa eraikuntzan	0,0	1,6	1,1	1,7	3,3	3,7	2,4
Barne eskaria	1,6	1,6	1,4	1,4	1,3	1,2	1,3
Esportazioak	3,1	2,0	3,3	3,0	2,8	2,6	3,0
Inportazioak	2,4	0,8	2,6	2,1	1,8	1,7	2,1

Iturria: Ceprede.

Testuinguru ekonomiko globalari eta koiunturako adierazleei buruz eskuragarri dagoen informazio berriarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eguneratu egin du 2019-2020 aldirako EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa. 2019rako hazkunde aurreikuspena aurreko hiruhilekoan argitaratutako erregistroan mantendu da eta 2020rako aurreikuspena hamarren bat zuzendu da beherantz. Hala, BPGaren aldakuntza aurreikuspenak %2,2an daude 2019an eta %1,9raino apalduko dira 2020an. Hala eta guztiz ere, jarduera ekonomikoak erritmo onean aurrera egingo duela espero da, baina moteltzeko joera txiki batekin. Aztertutako bost hiruhilekoetan, hiruhileko arteko hazkunde tasak %0,5aren ingurukoak izango dira.


Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenak erdiko toki batean kokatzen dira beste erakunde batzuek argitaratutako zenbatespenen artean. 2019. urterako, balioen urkila Confebasken %2,5aren eta

BBVAren %1,7aren artekoa da. 2020rako aurreikuspenek ez dute hainbesteko ibilbiderik eta Laboral Kutxaren %2,1aren eta Ceperederen %1,6aren artekoak dira.


Barne eskariak EAEko ekonomiaren hazkunde eragile nagusia izaten jarraituko du. Osagai horrek 2,3 puntu ekarriko dizkio ekonomiaren gehikuntzari 2019an eta 2,1 puntu, berriz, 2020an. Familien azken kontsumoko gastua moteldu egingo da urte hauetan, behin geroraturako eskariaren eragina desagertzen denean eta, beste aldetik, familien aurrezki tasa handitzen denean. Enpleguaren sorrera izango da familien kontsumoa sustatuko duen faktore nagusia. Barne eskariaren beste agregatu handiari dagokionez, kapital eraketa gordinak aurreko aldietan baino profil motelagoa erakutsiko du. Hala eta guztiz ere, goranzko bilakaerari eutsiko dio, neurri batean ekoizpen ahalmenaren erabilera handiari eta finantzaketa baldintza onuragarrirei esker. Dena dela, dagoen ziurgabetasun maila handia jaitziko balitz, eragileen konfiantza handituko litzateke eta espero baino hazkunde handiagoa ekarriko luke barne eskariaren osagaietan. Agertoki makroekonomiko berrian aztertutako aldiari, kanpo sektorearen ekarpena pixka bat negatiboa izango da hedapen txikiagoko nazioarteko testuinguru batean.

2019ko eta 2020ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2019



Aurreikuspen panela 2020



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, CEPREDE (2019ko azaroa), BBVA (2019ko urria), Confebask (2018ko abendua), Laboral kutxa (2019ko uztaila), Funcas (2019ko ekaina) eta Hispalink (2019ko uztaila BEGren aldakuntza).

Jarduera adarretako datuetan, ekoizpen sektore guztiek balio erantsi gordinaren hazkundeari ekarpenak egingo dizkiotela aurreikusten da, nekazaritza eta arrantzaren adarraren salbuespen bakarrarekin. Izan ere, sektore horrek narriadura txiki bat eragingo du aurreikusitako bi urteetan. Beste sektoreen aldetik, haien hazkundeek egonkortasuneko joera edo bizitasun ekonomikoaren gutxitze arina mantenduko dituzte. Horrela, eraikuntza izango da hazkunde tasa handiena izango duen jarduera adarra, eta ondoren, zerbitzuak eta industria.

Enpleguari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren egungo aurreikuspenen arabera, 2019an %1,6ko igoera egongo da, eta 2020rako, urteko batez besteko aldakuntza tasa %1,2koa izango da. Tasa horiek bat datoz aurreko hiruhilekoan argitaratutakoekin eta esan nahi dute 2019an, lanaldi osoko 15.500 lanpostu inguru sortuko direla eta, 2020an, 11.500 lanpostu inguru. Langabezia tasari dagokionez, aurreikuspenek hobera egin dute zertxobait eta, kalkuluen arabera, urteko batez bestekoa %9,7koa izango da 2019an eta %9,6ra jaitsiko da, batez beste, 2020rako.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019		2020				2020
	IV	2019	I	II	III	IV	
BPG	2,1	2,2	2,0	1,9	1,8	1,8	1,9
Azken kontsumoa	2,0	2,0	1,9	1,8	1,7	1,7	1,8
Kontsumo pribatua	1,9	2,0	1,9	1,8	1,7	1,7	1,8
Kontsumo publikoa	2,2	2,1	2,0	1,8	1,8	1,9	1,9
Kapital eraketa gordina	2,4	2,8	2,5	2,5	2,8	2,9	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,2	2,3	2,1	2,1	2,0	2,1	2,1
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	-0,1	-0,1	-0,2	-0,2	-0,3	-0,2
Lehen arloa	-0,5	0,5	-2,0	-4,2	-3,4	-4,7	-3,6
Industria eta energia	0,9	0,7	0,7	0,9	1,3	1,5	1,1
Eraikuntza	2,8	3,4	2,8	2,6	2,4	2,4	2,5
Zerbitzuak	2,6	2,6	2,5	2,3	2,1	2,1	2,3
Balio erantsi gordina	2,1	2,2	2,1	1,9	1,8	1,9	1,9
Ekoizkinen gaineko zergak	2,0	2,0	1,7	1,8	1,7	1,7	1,7
BPGaren deflatorea	1,2	1,1	1,4	1,4	1,5	1,7	1,5
Enplegua	1,4	1,6	1,3	1,2	1,1	1,1	1,2
Langabezia tasa	9,8	9,7	9,7	9,7	9,5	9,5	9,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.